




## EDUCO 2015 ERAKUSKETAK

Gizarte konprometituago eta mundu zuzenago batera bideratutako aldaketa baten alde





## EDUCO 2015 ERAKUSKETAK

### Gizarte konprometituago eta mundu zuzenago batera bideratutako aldaketa baten alde

---

#### EDUCO

Garapenerako lankidetzako nazioarteko GKE bat gara, 25 urtetik gorako eskarmentua dugu, eta haurren alde eta haurren eskubideak defendatzeko egiten dugu lan, bereziki berdintasunezko eta kalitatezko hezkuntza izateko eskubidearen alde. Neska-mutilekin eta haien inguruarekin egiten dugu lan, haien eskubideak eta ongizatea bermatzen dituzten gizarte zuzen eta bidezkoagoak sustatzeko. Neska eta mutil guztiei beren eskubideez eta bizitza duin batez osoki gozatzeko aukera ematen dien mundu bat nahi dugu.

Educotik, lankidetzako proiektuak gauzatzen ditugu garapen bidean dauden herrialdeetan, eta gure herrialdean garapenerako hezkuntzako eta sentsibilizazioko ekintzak gauzatzea kontzientziak aldatzeko eta horrela munduan biztanleria zuzen eta solidarioagoa lortzeko lagungarria dela uste dugu.

#### AURKEZPENA

Educotik gauzatzen ditugun sentsibilizazio-jarduerak sustatzeko, gure proposamenen katalogoa aurkezten dizuegu.

Aurkezten ditugun erakusketak egiten dugun lanaren erakusgarri dira, baita presentzia dugun herrialdeetako errealitateen adierazgarri ere. Era berean, sentsibilizazio-tresna bat dira gure lanaren ardatz bihurtu diren gaietarako: hezkuntza eta haurren eskubideak.

Katalogo hau gure lanarekin erlazionatuta dauden gaien berri ematen eta sentsibilizazioan parte hartu nahi duten udalei, kultura- eta kirol-ekipamenduei, kultura-zentroei, unibertsitatei, enpresei, dendei eta eremu publikoei eskaintzen zaie. Gainera, hezkuntzaren sektore formalean eskaintzen dugun garapenerako hezkuntzarako osagarria izan daiteke haur, lehen eta bigarren hezkuntzako eskoletan.

Herritartasun aktiboa eta kritikoa bultzatu nahi dugu, gizarte-bidegabekeriak aldatzeko dinamikak sortzeko.

**Gure jardueren jarraipena egin nahi baduzue, gure web orria kontsulta dezakezue:** [www.educo.org](http://www.educo.org)

# UMEEN ESKUBIDEAK

## Kartoizko silueten erakusketa

---

### Jarduera osagarriak

#### Hitzaldia

Umeen eskubideei buruzko erakusketaren testuinguruan, ume eta nerabeei nahiz helduei zuzendutako hitzaldiak eta tailerrak antolatzeko aukera eskaintzen dugu. Jarduera honek, era berean, irakasle eta hezitzaileentzat umeen eskubideen inguruko hezkuntzari buruzko tailerrak antolatzeko aukera ematen du.

#### EDUKIA

Munduko ume guzti-guztiek, bereizketarik gabe, eskubide berak dituzte. Umeen Eskubideei buruzko 1989ko Konbentzioa hizkera ulerterrazean jaso da eta eskubide horien harira egin dugun lanaren lotura adierazten da.

Eskubideek erantzukizunak dakartzate heldu, gobernu eta haurrentzat.

#### FITXA TEKNIKOA

- Deskripzioa: foamezko 150 x 90 cm-ko 10 panel
- Kokapena: oinarri trianguluarra panel bakoitzean
- Hedapen-materiala: poster digitala



## HAURREN LAN-USTIAPENA, Bangladesh 5 urte geroago

### Argazki-erakusketa

#### Jarduera osagarriak

##### Erreportajea eta hitzaldia

Argazki-erakusketaren esparruan, 60 minutu inguruko jarduera bat antolatzeko aukera ematen dugu. Jarduera honek haurren ustiapenaren eta umeen eskubideen inguruko hitzaldi bat eta bertaratuekin egiten den eztabaida barne hartzen ditu.

#### EDUKIA

2007an, Bangladesh-eko ume langileen errealitate gogorra erakutsi genuen. Orain, ume horiei 5 urte geroago ateratako argazkiak gehitu ditugu.

Haurren ustiapenak bere horretan jarraitzen duen arren, beren bizitza-kalitatea hobetzeko aukera duten adingabe gehiago daude: ez diote lan egiteari uzten, baina beren ikasketak buka ditzakete.

#### FITXA TEKNIKOA

- Deskripzioa: polikarbonatozko 11 plaka (oso arinak) 100 x 70 cm-koak argazkiekin eta testuarekin
- Kokapena: 2 esekitoki argazki bakoitzeko
- Hedapen-materiala: poster digitala



# HEZKUNTZA, ETORKIZUNERAKO BIDEA

## Kuboen erakusketa

### Jarduera osagarriak

#### Erreportajea eta hitzaldia

Argazki-erakusketaren esparruan, 60 minutu inguruko jarduera bat antolatzeko aukera ematen dugu. Jarduera honek hezkuntzarako eskubidearen eta umeen eskubideen inguruko hitzaldi bat barne hartzen du.

### EDUKIA

Erakusketa honetan, Educok hezkuntza pobreziatik irteteko eta bizitza hobea lortzeko aukerarik onena dela uste duelako hezkuntzaren alde egiten duen apustua ikus daiteke.

Ibilbide honek hezkuntzarako eskubidea munduan zein egoeratan dagoen erakusten duen ikuspegi zabal bat eskaintzen du. Nazioarteko organismoek adostu duten esparru orokorra eta Educoren proiektu berritzaileak nahasten ditu, hala nola Boliviako *Rincón del buen trato*, Kanbodiako *Hezkuntza zorionsua* edo Ghanako *Liburutegi bidaiariak*.

### FITXA TEKNIKOA

- Deskripzioa: 6 zutabe foamezko 50 x 40 cm-ko 24 kuborekin, testuekin eta irudiekin 4 alboetan
- Kokapena: kuboek elkarri eusten diote
- Hedapen-materiala: poster digitala



# HEGOALDERA BEGIRA

## Argazki-erakusketa

---

### Jarduera osagarriak

#### Hitzaldia

Educoren lanaren xede den herrialde baten inguruko sentsibilizazio-hitzaldiak antolatzen dira.

#### EDUKIA

20 argazkiren bitartez (umeen, gizonen eta emakumeen begiradak), pertsona horiek lan egiten duten herrialde desberdinetan duten errealitatera hurbilduko gara.

Benetako istorio pertsonal hauei esker, modu gizatiarragoan hurbil gaitzke haien eguneroko bizitzara.

#### FITXA TEKNIKOA

- Deskripzioa: 80 x 50 cm-ko 20 argazki
- Kokapena: 2 esekitoki argazki bakoitzaren atzean
- Hedapen-materiala: poster digitala

